



Pikara Magazine aldizkaria, Mantequilla de Colores elkartasun kabareta eta Rayo Vallecano, Hegoak Elkartearen **“2015 Elkartasun Sariak”**.

Hegoak Elkarteak urtero Elkartasun Sariak banatzen ditu: sexu aniztasun eta genero ikuspegiaren aldeko lanean eta LGTBi kolektiboarekiko fobiak ezabatzeko borrokan egindako lan eta ibilbideagatik nabarmentzen diren elkarte, pertsona edo erakundeak. Aurten hauentzat izango dira: Pikara Magazine euskal aldizkaria, Valentziako Lamba Elkartearen “Mantequilla de Colores” elkartasun kabareta eta lehen mailako Rayo Vallecano taldea.

“Sariak kultura, kirol eta osasun arloetan egindako lanagatik nabarmentzen dira, Hegoak Elkartearen eguneroko lana oinarritzen diren arloetan hain zuzen” azpimarratu du Javier Regalado presidentek.

Pikara Magazinek kalitatezko kazetaritza eskaintzen du genero ikuspegitik, zorrotza, inklusiboa, konprometitua, urratzailea eta ludikoa. Mantequilla de Coloresek trabestismoa elkartasun helburuekin erabiliz, dagoeneko 7 topaketa terapeutiko lortu ditu GIBdun pertsonentzat. Rayo Vallecanok bere janzkeran daraman ostadarraren koloreen bitartez garrantzi handiko komunikazio eta ikusgarritasun plataforma eskaintzen die 7 kausen eguneroko borrokan diharduten heroi anonimoentzat: ihesaren aurka, ahalmen urriko pertsonen integrazioaren alde, ingurumenaren alde, haurrenganako tratu txarren kontra, genero indarkeriaren kontra eta sexu joera eta genero nortasunagatiko diskriminazioaren kontra.

Sariak datorren abenduaren 12an banatuko dira Hegoak Elkartearen egoitzan. Pikara aldizkariaren ordezkariak eta Mantequilla de Coloreseko zenbait kidek dagoeneko baieztatu dute sariak jasotzera etorriko direla.

## **PIKARA MAGAZINE**

Pikara Magazinek kalitatezko kazetaritza zabaltzen du genero ikuspegitik eta hedabideetan gutxitan agertzen diren pertsona eta kontakizunak dituela protagonista. Beroriek kontatzen duten moduan, gizarte eta kultura gai guztiak jorratzen dituzte beste ikuspegi batetik: zorrotza, inklusiboa, konprometitua, urratzailea eta gozatzailea. Bere izena keinu bat da feminitate subertsiboaren norabidekoa eta feminismo gazte, fresko, urratzaile eta alaiarekin bat datorrena, emakumeen eskubideen alde borrokatzen dutenek daramaten estereotipoaren zamatik aldendu nahian.

## **MANTEQUILLA DE COLORES**

Mantequilla de Colores (MdC) orain dela sei urte ekonomia krisi betean, GIB-HIESAri buruzko plan nazionala eta autonomikoaren funtsak desagerrarazi zituena, jaiotako Elkartasun Kabaret taldea da.

Orduantxe, trabesti eta transexual talde batek, seropositibo eta seronegatiboak takoiak jantzi eta ibilbide artistikoari ekin zion ikuskizun “arrevistatuetan” eta kabaretaren munduan. Helburua baliabide ekonomikoak biltzea zen Valentzian bilkura terapeutikoa egin ahal izateko urtero moduan. Hastapenetatik, dagoeneko 7 topaketa egin dituzte, eta gastu guztiak bere gain hartu ahal izan dituzte urtean zehar egindako emanaldiei eta elkartasuna agertzen dien bere publiko jarraitzaileari esker.

## **RAYO VALLECANO**

Lehen mailako taldeak beste urrats bat eman nahi izan du gure gizartean egunero borrokan diharduten heroi anonimoen lana aintzat hartzeko. Horretarako, taldearen bigarren jantziak zazpi kausa omentzen ditu:

Ihesaren aurkako borroka, ahalmen urriko pertsonen integrazioa, ingurumenaren aldekoa, haurrenganako tratu txarren kontrakoa, genero indarkeriaren kontrakoa eta sexu joera eta genero nortasunagatiko diskriminazioaren kontrakoa.

Gainera, kamiseta bakoitzagatik 7 euro emango dizkiote kausa horien alde lan egiten duten hainbat elkarteri.